BEGOÑAZPI

ASTEKARIA

begoñazpi ikastola

2022ko apirilaren 4a

APIRILA

2

TORREMOLINOS, MÁLAGA

FIRST LEGO LEAGUE

ESTATUKO FINALA

BARRIKUNTZA-PROIEKTUAK

SARIA JASO DAU!!!

URTERO LEZ, BEGOÑAZPI IKASTOLAK LAN BIKAINA EGIN DAU ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA ROBOTIKA UZTARTZEN DAUAZAN LEHIAKETAN.

begoñazpi eredua • mod

INICIATIVA STEAM EKIMENA

Iniciativa STEAM euskadi Ekimena

WHEEL REVOLUTION, BARRIKUNTZA-PROIEKTUAREN BIGARREN SARIA

Torremolinosen (Malaga) pasa dan zapatuan izan zan First Lego League lehiaketaren finalean, Begoñazpi Ikastolako taldeak Barrikuntza Proiektuaren bigarren saria irabazi eban. DBH 3.mailako taldeak Deustuko Unibertsitatean izan zan Bizkaiko finala irabazi ondoren, finalerako txartela lortu eban. Estatuko 2.000 taldetik finalerako 38 sailkatu ziran, honeetatik 3 Bizkaikoak.

Aurkeztatuko proiektuan, Wheel Revolution taldeak pneumatikoen hondakinen zuntzak aprobetxatuz, banatzeko kutxa jasangarriak lortu dauz.

Urtero lez, Begoñazpi Ikastolak lan bikaina egin dau zientzia, teknologia eta robotika uztartzen dauzan lehiaketan.

LAN BIKAINA FIRST LEGO LEAGUE LEHIAKETAN

ARRAZOLARA JOAN GARA!

Pasa dan barikuan, martiaren 25a, bost urteko umeek Atxondon dagoan Arrazolako ibilbideak eskaintzen dauan paisaia politaz gozatu eben. Ikasgelan lantzen dagozan “Hau bai makina!” proiektuan, besteak beste, kirola egiteak dauan garrantzia nabarmendu eta jorratu dabenez, ikasleek zein irakasleek bide berde honek dauzan 5 kilometroak egin ebezan.

SHORT STORY CREATIVE WRITING CHAMPIONS 2022

This past trimester, our Grade 10 and 11 students took part in our 14th Annual Creative Writing Contest. The finalists from this contest participated in the final and the following 3 winners have been awarded. Congratulations winners and participants, you did an amazing job!
1st Prize: Ms Irena Vukcevic
2nd Prize: Mr Igor Egido
3rd Prize: Mr Kerman Medeiros